



# TAK-EKO SENIORRAK SEIGARREN TARRAGONAN

Espainiako Llaut txapelketan hartu dute parte asteburuan TAKeko arraunlariek; beteranoak ez zuten sailkatzea lortu 6

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteartea**  
**2009-10-06**

VII URTEA 1.794. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Ugarte auzoan jatekoak eta edatekoak ez zuen hutsik egin herenegun. SARA GOMEZ

## Gipuzkoako selekzioa bigarren Euskadikoan

**VILLABONA** Danena Olaederra taldeko lau pultsulari aritu dira; Nafarroak irabazi zuen larunbatean Olaederran jokaturiko txapelketan 5

**BEGOÑA ZUBELZU** AUZIPETUA

«Ez dugula ezer egin garbi dugu, beste guztiak ez dio axola»

**ALEGIA** 'Egunkaria'-ko auzi ekonomikoan auzipetutako zortzi kideak Espainiako Auzitegi Nazionalan izan ziren atzo 7

## UGARTEN ETA IRURAN GIRO EDERREAN AMAITU DITUZTE JAIAK

**JAIK** Antolatzaileak «gustura» azaldu dira festek izan duten harrerarekin; Iruran adinekoen eguna ospatuko dute igandean 4

**Garaipenarekin  
hasi du  
denboraldia  
Bide Bide Ibizak**

**TOLOSA** Zornotzaren aurka 88-94 irabazi zuten, etxetik kanpoko partidari 2

**Pako Larrañaga  
gaur gauerdian  
iritsiko da  
Madrilera**

**ALEGIA** Auzitegi Nazionalak bihar erabakiko du non bete beharko duen zigorra 3

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza**  
bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31980 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:

• N A :

• Lanbidea:

• Jaioteguna:

• Helbidea:

• Herria:

• P.K.:

• Tel.:

• Posta elektronikoa:

• Kontu zenbakia:

**Futbola** » 3-0 galdu zuten larunbatean jokaturiko partida; hurrengo a etxean jokatuko dute, Idiazabalen aurka.

#### INIGO TERRADILLOS

Zarautzen aurka zuen partida larunbatean lurraldeko ohorezko mailako Tolosa CFk, eta ezin izan zuen irabazi. Punturik gabe itzuli ziren, beraz, tolosarrak 3-0 galdu ostean.

Lehenengo zatia nahiko orekatua izan zen, eta agian Tolosa gehiago izan daitekeela ere esan daiteke. «Bi taldeek izan genituen aukerak, baina guk gehiago; azkenean ez genuen gola egiten asmatu», azaltzen du Alberto Izquierdo entrenatzaileak. Zarautzarrek ere izan zituzten aukerak, baina gehiagoko jokaldi geldietatik. Beraz, lehenengo zatia golik gabe amaitu zen, 0-0.

#### Bigarren zatian arazoak

Bigarren zatia, ordea, bestelakoa izan zen. Penaltiz iritsi zen lehen-dabiziko gola, zarautzarren esku-tik. «Penaltia ez zen oso argia izan, eta horren ondorioz, partida aldatu egin zen», dio Izquierdok. Hain zuzen ere, bigarren zatia hasi eta berehala, 3. minutuan sartu zuen Iribarek gola penaltiz.

Markagailua kontrariaren orduan Tolosan, eta jokoa ireki zuen, horrek zekartzan ondorioekin, arisku handia sortu baitzezakeen. Hala, berehala iritsi zen zarautzarren bigarren gola, 14. minutuan.

# Zarautzarren aurka ezin izan dute tolosarrek



Aurtengo denboraldiko lurraldeko ohorezko mailako Tolosa CFko taldea. KUSK

Kornerrez sartu zuten, eta Asier Aizpurua izan zen baloia sarean sartu zuena.

Tolosak partidari buelta eman nahi zion, eta horretan saiatu zen erasoan saiatur. Eraso batean, ordea, Zarautzek baloia lapurtu eta kontraerasoari ekin zionean egin zuten hirugarrena. Partida ia amaieratik zegoenean izan zen, hau da, 43. minutuan, eta Carlos izan zen egilea.

Ez zen gehiagorako denborarik

izan, eta horrela amaitu zen partida, 3-0ekoarekin. Punturik gabe itzuli ziren, beraz, tolosarrak.

#### «Taldea egiten»

Hurrengo partida Idiazabal taldearen aurka jokatu dute tolosarrek. Partida etxean jokatu dute, hau da, Berazubiko zelaietan, eta irabaztea espero eta nahi du taldeak; «bi partida jokatu ditugu etxean, eta biak berdindu, beraz, ealortzen dugun lehendabiziko garaipena»,

azaltzen du Tolosako entrenatzaileak. Ez dute, ordea, partida erraza izango; «lau partidatik hiru irabazi dute Idiazabalgoek, eta gol ugari sartu dituzte, gainera, beraz, ziur ez dela erraza izango».

Entrenatzailearen arabera, «azkarregi» da oraindik taldea baloratzen hasteko, «egiten ari baita oraindik, eta orain arte izan diren emaitzak jokatu dako arerioaren arabera ere hartu behar dira kontuan», gehitzen du Izquierdok.

# Garaipenarekin ekin dio denboraldiari Bide Bide Ibizak

**Saskibaloi** » Zornotzaren aurka 88-94 irabazi zuten tolosarrek, partida osoan zehar markagailuan atzetik joan ostean.

#### ERREDAKZIOA

Igadean jokatu zuen denboraldiko estreinako partida Bide Bide Ibiza saskibaloi taldeak. Arerio bezala, Zornotza talde indartsua izan zuten tolosarrek, baina, hala ere, garaipenarekin bueltatu ziren etxera, 88 eta 94 hain zuzen ere.

Ez zen, beraz, partida erraza, kantxa zaila baita, pibot gogorrek dituzte zornotzarrek, eta azken urteetan igoera fasea jokatu dutela hartu behar da kontuan. Tolosarrek ere ez zuden euren hoberean, hiru baja garrantzitsu baitzuzten, Haritz, Lakun eta Mikel, hain zuzen. Deialdia bigarren taldeko Kaiet eta Kikekosatu beharra izan zuten.

Partida hasieran taldea «urdu-ri» kantxaratu zen «gauzak ondo

egiteko gogo», baina beti gogoa ez da jokoaren islada izaten. Lehen laurdena 25-14 bukatu zela izan zen adibiderik garbiena. Zornotzako Perez antolatzaileak «min handia» egin zuten laurden honetan kanpoko jaurtiketarekin.

Etxekoan aldetik aldeak handitzen joan ziren pixkanaka 13 puntuko aldealortu zuten arte. Tolosarren ahaleginak alperrikakoak izan ziren markagailuan gerturatzeke. Abantaila pixka bat murrizten zen bakoitzean etxekoek baloi ugari lapurtu eta gero berriz handitzen zuten alde.

Atsendaldiaren ondoren gauzak ez ziren aldatu eta 25. minutuan Izkararen hiruko batek 58-39 emaitza jarri zuen markagailuan. Alarma gorri guztiak piztu, eta orduan taldeak bere nortasun guztia atera zuen une zailetan gorantz egin behar dela erakutsiz. Defentsa gogorarekin eta kontraeraso azkarrekin 66-59 bukatu zen hirugarren laurdena.

Partidan sartzeko lan «izugarria» egin ondoren aurrerapauso

bat eman behar zen norgehiagoka irabazteko. 36. minutuan Iñigoen —partidu izugarria egin zuen— saskiratzete batek partida 72-72 berdindu zuen. Hortik aurrera kanpotarrak hazi egin ziren eta etxekoak behera etorri ziren. Pena izan zen Kikek jaso zuen teknika markagailua arriskuan jarri zuela momentu batez minutu bat falta zela. Amaieran 88-94 irabazi zuen Tolosako taldeak.

Larunbatean, Seky talde gastetiztarra jasoko dute etxean, Usabalen, 18:00etan. Tolosarren ustez, «garrantzitsua da denboraldia garaipen batekin hastea, baina etxean sendoak izan behar dugu partidak aurrera ateratzeko».

#### Beste taldeak

TAKEko gainerakoek emaitzak ez dira hain onak izan: kadete neskek Goxodenda kafetegiarekin aurka galdu zuten 37-69; kadete mutilek ere galdu egin zuten Sein mutilak aurka 51-31; eta junior mutilek ere ezin izan zuten Gros Xake-Easo Haranaren aurka, 51-27.

#### » DATUAK

##### Emaitza

- Laiene Zornotza. 88.
- Bide Bide Ibiza. 94.

##### Jokalariak

- Laiene Zornotza. Perez (16), Fernandez J. (12), Ocerin (12), Fernandez I. (6) eta Diego (9) —hasierako bostekoa— Herrero (2), Fernandez J. (10), Izkara (11), Nuñez (2) eta Totorika (8).
- Bide Bide Ibiza. Kike (9), Goar (22), Iñigo (12), Jon Ander (4) eta Ion (15) —hasierako bostekoa— Martia (3), Joseba (0), Kaiet (5), Mendilu (8), Aza (8) eta Julien (8).

##### Partzialak

- 25-14 / 22-20 / 19-25 / 22-35.

##### Sailkapena

- 1. Easo P. Arruabarrena.
- 2. Promociones Legarzia.
- 3. Bidegintza-Cespa.
- 4. Euskotren Baskonia.
- 5. Bide Bide Ibiza.
- 6. Laiene Zornotza.
- 7. Seky.es.
- 8. San Ignacio UPNA.
- 9. Padura.
- 10. Tabirako Baque.

## Laburrak

### Tolosa Kantari-rako entsegu, bihar 20:00etan

**MUSIKA** • Tolosa Kantari ekimena hilaren amaieran izango da ohi bezala, baina aurretik, entseguak egingo dituzte parte-hartzaileak. Bihar izango da entsegu Tolosako Udala Musika Eskolan (Gorosalbel Zaharrea), 20:00etatik aurrera. Aretu nagusian egin ordez, ikasgela batean egingo dutela jakinarazi dute antolatzaileak. Ekimenean parte hartu nahi duen oro gonbidaturik dago entsegura joatera.

### Ertzaintzaren Banda ariko da bihar lurreamendin

**MUSIKA** • Lurreamendi egoitzan kontzertua izango da bihar, 11:00etan hasita. Hain zuzen ere, Ertzaintzaren banda ariko da zuzenean egotzaren aurrean musika eskaintzen. Kapilan izango da emanaldia.

### Altolagirrenen lanak ikusgai Aranburun

**ARTEA** • Iñigo Altolagirrenen lanak daude ikusgai Aranburu jauregian. Urriaren 31ra arte erongo da zabalik erakusketa.

## T Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leizta.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

**Tolosa.**

**Anbulatorioa, larriald:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 943 693930

#### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leiztaran autob.** 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leizta):** 608 873016

#### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Lurreamendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474

## 2-2an amaitu da Goierri eta Transportes Lakuntzaren artekoa



Transportes Lakuntza Villabonako taldea aurten Nazional B mailan ari da jokatzeko. HITZA

**Villabona** » Goierriren aurka jokatu zuen larunbatean, Urretxun; denboraldiko bigarren partida izan da hau.

### ERREDAKZIOA

Joan den asteko garaipenaren ostean, berdinketan amaitu da Villabonako taldearen bigarren partida. Goierri izan zuen aurkari larunbatean, Urretxun jokatuak norghegiagokan, eta bina egin zuten.

Partidako lehen minutuetan, goierrikoek izan zuten gehienetan

baloia. Tartean, pase txar batzuk aprobetxatuz, bereganatu zuten Villabonakoek, eta aurka egiten saiatu. Hasiera nahiko pisutsua izan zen bi taldeen eskutik, eta bietako inork ez zuen erasorako aukera sendorik. Hala, 12. minutuan Lakuntzaren hutsegite baten ostean, aurretik jarri ziren markagailuan goierrikoak.

Golaren ondotik, aurrealdean presio handiagoa egiten hasi ziren eskualdekoak, ondorioz, deserosoago sentitu ziren etxeok, defentsa lanetan. Hainbat saiakeraren eta hutsegiteren ostean, Lander Uzkudunek errematatu zuen urrutitik atera, eta tartean agertu

zen Hautsi Izagirrek, baloiari ukitu bat eman ostean Villabonako lehendabiziko gola etorri zen.

Bigarren zatian, zenbait akats zuzendu zituzten, eta konfiantzarekin, irabazteko prest hasi ziren jokoan. Lakuntzak eduki zuen gehienetan baloia, baina 7. minutuan, etxeok gol bat sartu eta, markagailuan aurretik jarri ziren. Une horretatik aurrera, abiadura handiagoan jarri zuen baloia Villabonako taldeak eta Goierriko taldeak asko sufritu behar izan zuten. Hainbat aukera izan zituen Lakuntzak baina, partida amaitzeko 12 segundoko falta zirela etorri zen norghegiagokako azken gola.

## Pako Larrañaga gaur gauerdian iritsiko da Filipinetatik Madrilera

**Alegia** » Espainian beteko du geratzen zaión zigorra; bihar Auzitegi Nazionalatik igaroko dela aurreikusten dute.

### ERREDAKZIOA

Filipinetan ari da kartzela zigorra betetzen bi gazte erail izana leporatuta. Espainiako eta Filipinetako Gobernuen arteko hitzarmena tarteko, Espainiaratzea adostu dute, bertan zigorra betetzen jarraitzeko. Atzo arratsaldean alegiar jatorrikoak Madrilera eramango duen hegazkina hartu zuten. Bere abokatuak adierazi duenez, gaur gauerdian iritsiko da Madrilera.

Pako Larrañaga Espainiako Auzitegi Nazionalatik bihar igaroko dela aurreikusten dute. Orduan zehaztuko du auzitegiak zein espetxetan bete beharko duen zigorra.

## Laskorainek erraz irabazi du bigarrena

**Tolosa** » Partida zaila izan behar zuela zirudien arren, 0-7ko emaitzarekin gailendu zen Portugaleteren aurkako.

### ERREDAKZIOA

Iskanbila ugari sortzen ari da ikastolako mutilen txapelketa hasiera. Izan ere, pasa den larunbatean ligako talde onenetako bati irabazi zion Jorgeren taldeak, azkeneko 0-7ko emaitzak argi erakusten duenez. Imanol prestatzailearen eskutik lortutako maila fisiko bikoainari, talde gazte honen gogo eta ilusioa gehituta errezeta bikaina lortu du Javi eta Jorge osatutako bikoteak.

Neurketa zaila, Nazional A mailan urte askoan aritutako jokalaririk gogor eta beteranoez osatutako taldea baita portugaleterra, aurreko denboraldian jasotako bi porrotak lekuko. Epaileek hasierako txistua jo zuten momentutik ikas-

tolakoen erritmoa aurkariarena baino askoz bizkorragoa izan zen. Beteranoen aldera pasa den Barriolak urrutitik egindako jaurtiketa batekin eta kalitatea soberan duen Telleriak faltaz, bi goleko errentarekin jarri zuten taldea. Hasiera bikain honen ostean, Laskoraingoen intentsitatea ez zen zipitzi ere jaitsi ordea, eta defentsan berreskuratutako baloi bati irteera bizkorra eman eta gero berriz ere gola sartu zuen Barriolak, atsedenaldira 0-3 iritsiz.

Atsedenaldiaren ostean Laskorainek baloia hara eta hona mugitu zuen demorak aurrera egin eta partida lokartzeko. Lan hori ederki bete zuten taldeak baina 10 minuturen faltan atezain jokalaritaktika ipini zuten Jarrilerosek. Ikastolakoak serio mantendu ziren defentsan eta Landerrek «horretarako berezia duela erakutsiz» bi baloi lapurtu eta bost goleko errentarekin jarri zuten taldea. Azken minutuetan beste bi jokaldi bikain lotu zituen taldeak.

## Osasun eta Gizarte Zerbitzuetan diharduten elkarteentzat, laguntzak

**Tolosa** » Urriaren 30era arte izango dute aukera arlo horretan lan egiten duten entitateek beraien eskaerak aurkezteko epea.

### ERREDAKZIOA

Udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako Sailak diru laguntzak emango dizkie Osasun eta Gizarte Zerbitzuen alorretan diharduten entitate eta taldeei. Honen helburua da herritarren parte-hartzea eta elkartasuna sustatzea eta babestea. Eskaerak egiteko epea urriaren 30ean, 13:00etan amaitzen da.

Osasun eta Gizarte Zerbitzuak eskaintzea ardurak publikoak bada ere, inongo administrazioa ez da gai, ezta Udala ere, berez bakarrik herritarren eskaerak bideratzeko, kudeaketa herri-entitate eta herri taldeekin banatu behar du. Bestalde, Udalak, herritarrak gertuen duen erakunde administratiboa izanik, udalerrietan dauden elkarre eta taldeekin sustapen lana egin behar du, aholkularitza teknikoak

eman eta baita babes ekonomikoa ere.

Diru laguntza jaso ahal izango dute ondorengo jarduerak hauek: asoziazionismoa bultzatzen dutenak, hitzaldiak, kanpaina dibulgatiboak, azterketak, prestakuntza ikastaroak, integrazioari begirako jarduerak eta osasun eta gizarte zerbitzuen alorraren barruan taldeak atenditzeko jarduerak.

Laguntza eskatu ahal izateko, elkarte eta entitateek, beraien egoitza edota jarduerak-esparrua Tolosan izan beharko dute. Gainera, ezingo dute irabazi asmorik izan, eta jarritako helburuak bete-ko direla bermatzeko behar adina azpiegitura izan beharko dute, hartarako beharrezko eskarmen-ut operatiboa frogatuz.

Zenbait agiri aurkeztu behar dira udalarekin eskaera egiteko garaian: eskaera, memoria eta balantze ekonomikoa, entitate eskatzailearen ordezkaririk sinatua. Baita, entitate eskatzailearen estatutuak ere. Informazio gehiago nahi duenak <http://www.tolosakoudala.net/ev/html/7/1876.shtml> helbidean lor dezake.

## Emaitza txarrekin hasi du denboraldia Ibarrek

**Ibarra** » Gasteizko Atletico Aretxabaletaren aurka jokatu zuen larunbatean, Belabieta kiroldegian; 1-3 galdu zuten ibartarrek.

### ERREDAKZIOA

Jardunaldi kaskarra ikusi ahal izan zen larunbat arratsaldean, Belabieta kiroldegian. Ibarrek taldeak Gasteiztik etorritako Atletico Aretxabaleta zuen aurkari, eta 1-3ko emaitzarekin galdu zuten honen aurka.

Gasteizkoek erakutsi zuten talde oso ona dutela, eta osatua. Ateari begirakoetan, ez zuten asmatu errematzen eskualdeko futbolariak. Ondorioz, merezitako emaitza izan zela esan daiteke larunbateko. Aretxabaleta izan zen partida guztian zehar erritmoa finkatu zuena. Askok itxaron behar izan zen Ibarrek lehendabiziko gola ikusteko.

Partidako lehen gola kanpokoan eskutik etorri zen. Mikel Trevinillo sartu zuen, Ibarrek defentsari baloia kendu ostean. Indarrez jaurti zuen baloia atera, eta 0-1eko egitea lortu zuen. Emaitza horrekin iritsi ziren atsedenaldira.

Aukera oso gutxi izan zituzten Gasteizkoek, baina hauek ongi aprobetxatzen jakin zuten.

Bigarren zatian lehendabizikoaren antzekoak izan zen. 24. minutuan berdinketa egitea lortu zuen Ibarrek, Jon Garmendiak sartutako golari esker. Eskualdekoen helburua zen jardunaldia menderatzea, baina gauzak ondoan egiten ari ziren unean, Ibon Bengoetxearen antzekoak izan zen. 24. minutuan berdinketa egitea lortu zuen. Markagailuan, 1 eta 2koa jarritz.

Hurrengo jokaldian, antzeko taktika erabiliz, Ibon Bengoetxeak norghegiagokako azken gola sartu zuen. 34. minutuan izan zen hau. Txubelek, azken aukera bezala, atezain jokalaria jartzea erabaki zuen, baina talde bisitariak, emaitza defendatu zuen amaierara arte. Partida arraroa eta zorte txarrekoa izan zen larunbatekoa.

Bestalde, jubenilen taldeak ere asteburu honetan hasi du denboraldia. 2-13 irabazi zuen honek Tolosako Orixeren aurka. Tolargiko taldeak berriz, galdu egin zuen bere aurreneko partida, 5-4 egin zuen Lasarteoko Ventanas Isu taldearen aurka etxetik kanpo jokatuakoa.

# Giro «ona» eta jende «ugari» Irurako San Miguel eta Ugarteko Errosarioetan

**Jaiak** » Iruran eta Ugarten amaitu dira jaiak. Antolatzaileak «gustura» geratu dira jendearen parte-hartzearekin.

## ENERITZ MAIZ

Irurako San Miguel jaiak eta Ugarteko Errosario jaiak amaitu dira. Iruran, zazpi egun pasa dituzte jaietan murgilduta eta oraindik adinekoek beraien eguna ospatuko dute. Ugarten aldiz, asteburua izan dute jaietz gozatzeko.

### «Giro ona» nagusi Iruran

Larunbat gauean erre zuten here-sengua festei amaiera emanaz. Nahiz eta, festak antolatzen aritu direnak oraindik ez diren elkartu Marimi Ugalde alkateak, balantze baikorra egin du: oso giro ona izan da egun guztietan. Ekitaldi guztietan jende asko ibili da, eta ekitaldietan parte hartu dute. Eguraldiak ere lagundu digu eta garrantzitsuena pake-pakean pasa direla festak izan da».

Aurtengoan, berezitasunetako bat Play-back-a izan da. Aski ezaguna da irurarren artean jaialdi hau baina aurtengo bereziagoa izan da 25 urte bete baititu ekintza honek. «Arrakastatsua izan zen eta talde eta adin ezberdinetako jendea bildu ginen bertan. Oso ondo atera zen. Bukaeran, bengalak piztu genituen eta guztientzat xanpain kopa bana ere banatu genuen».

Lehen aldiz, aurtun atera dituzte, berreraibiltzeko edalontziak. «Ez dugu guztiz lortu guk nahi genuena. Txosnetan arrakasta izan du baina, tabernen kasuan ez. Helburua kalean kristala eta plastikoa ez pilatzea zen baina kontzertuaren hurrengo egunean bereziki kalean zabor pila bat zegoen. Egia da, berandu ibili garea jendearengana iristeko. Datorren urtean, hobeto egiten saiatuko gara», gaineratu du Ugaldek.

Tortila erraldoia ere aurtengo berrikuntzetako bat izanda. Sagardo dastaketaren egunean egin zuten patata tortila erraldoia eta ber-

## Iragarki laburrak

### GALDUTAKOAK

■ **Jertse beltza eta eguzkitako betaurrekoak.** Joan zen igandean, irailaren 27an, jertse beltz bat eta eguzkitako betaurrekoak galdu ziren Urkizutik Erriorako bidean, Intxurbi baserriaren inguruan. Aurkitu dituenak dei dezala 695 749 825 telefono zenbakira. Aldez aurretik, mila esker.



Iruran ezkontuen dantzasokaren une bat. A. IMAZ



Igandean Ugarten egin zuten Txakolin dastaketa pintxoek lagunduta. SARA GOMEZ



Ugarteko Akelok Guraso Elkarteak zozketatu duen txerrietako bat. SARA GOMEZ

taratutako guztiek dastatzeko aukera izan zuten.

Azkenik, ohiko ekintzetatik aparte ondorengo nabarmendu nahi izan du Irurako alkateak: «*Les Diables de Canovelles*-ekin kale animazioa izan zen. Sua, perkusioa eta dantzak egin zituzten. Kataluniatik, 58 lagun etorri ziren eta gauza guztiak suarekin egiten zituzten, figura ezberdinak sortuz. Jarraian, festei amaiera emateko, herensugea erre genuen. Asko gustatu zitzaizkion jendeari gau horretako ekitaldiak».

Jubilatuaren eguna, urtero bezala, jaien ostean ospatuko dute, urriaren 11n. Meza Nagusiaren ostean, herriko dantzariak ariko dira eta Zaharren Biltokian bazkaria izango dute. Ondoren, sariak banatuko dituzte eta eguna bukatzeko, dantzaldia izango dute.

### «Jende asko» Ugarten

Duela urte batzuek arte, Ugarteko jaiak astelehenarekin bukatzen ziren. Orain, astelehena, paella bazkalduz elkartzeko baliatzen dute jaiak antolatzen dituztenek. Bertan, aurtengo jaien balantzea egin dute. Orohar, «gustura» daude jaiak izan duten harrerarekin.

«Jende asko ibili da orokorrean eta eguraldiak lagundu du horretan. Ugarteko jaietan jendea gerturatzeko baldintzetako bat eguraldia da. Lehen egunean, afaltzen 100 lagun inguru bildu ziren», azaldu du Eider Amundarainek. Ondoren, lehen kontzertua zuten eskualdeko kideek osatu berri duten Itzel taldea izan zen eta «beraien lagun eta familiako asko bertan zirela igerri zen», dio.

Puzgarrietan haur asko ibiltzen bada ere «zaldiak dira arrakasta izugarria dutenak. Sei zaldi egon ziren haurrak ibiltzeko eta ilara luzeak egin ziren zain zeuden haurren artean».

Jana eta edatekoak eskaintzen den ekintza guztietan jendea gerturatzen da eta Ugarteko jaietan ere hala izan zen. «Zahagiardora edo txakolin eta sagardo dastaketara jende asko animatu zen». Bestetik, urterokoa den Inguruetxo dantzatu zuten; «aurten, lehenbizi joaten den mutila, Joseba Karrera, ospitalean dagoenez bere lekukoa hartu zuen mutilak soinean zeraman elastikoan bere izena zeraman», gogoratu du bitxikeria bezala. Azkenik, bertan behera utzi behar izan zuten ekintza *Ikuskizun bitxia* izan zen. «Boloen jolasaren egitekoa. Pertsonak bolotzat jarri eta txekor bat atereaz bolok bota behar zituen. Pena izan zen, txekorra atera orduko lesioa zegoela eta bertan behera utzi behar izan zen», adierazi du Amundarainek.

### Bi txerri zozketan

Ugarteko jaiak baliatuz, Amezketako Guraso Elkarteak bi txerri zozketatu zituen igande arratsaldean. Zenbaki sarituak hauek izan dira: 2.799 eta 2.223. Zortedunek, Akelok Guraso Elkartera zuzendu beharko dute.



## AHTren eragina aztertuz

**AZPIEGITURAK** • Abiadura Handiko Trenaren aurkako eguna izan zuten pasa den larunbatean Aitzondo balaran. Goizean 15 bat pertsonak mendi martxa egin zuten. Ondoren, bazkaldu eta Gazume eta errauste-

giaren inguruko erakusketak izan zuten. Eguna bukatzeko *Klawnstrofobia mendian* antzezlanak ikusi zuten (irudian) eta Imanol bakarlarria ere aritu zen. Antolotzaileak gustura daude. **HITZA**



## «Elkartasuna Martuteneraino»

**LIZARTZA** • Lizartzako hainbat bizilagunek elkartasuna adierazi nahi izan zioten Kotsuelo Agirrebarrenari herenegun; hain zuzen ere, 60 lagun inguru izan ziren Martuteneko espetxeko atean. Agirrebarrena, 61 urteko Lizartzako bizilaguna, pasa den irailaren 1ean atxilotu zuten, 2007ko irailaren 6an Lizartzako Udaleko Begoña Pereira PPKo zinegotziari makilarekin jotzeko keinua egiteagatik. Lau urteko zigorra bete beharko du. **HITZA**

## Gipuzkoako selekzioa bigarren, Euskadikoan

**Halterofilia** » Danena-Olaederrako lau pultsulari aritu ziren Gipuzkoako selekzioarekin; bi aste barru Espainiakoan ariko dira.

### ERREDAKZIOA

Pasa den asteburuan Halterofilia Euskadiko Txapelketa jaso zuen Villabonako Olaederra kiroldegia, 15 urte azpikoetan. Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Gipuzkoako selekzioek hartu zuten parte; azken honetan Danena-Olaederra Halterofilia taldeko lau pultsulari aritu ziren (Adrian Sasiain, Kellian Quintana, Joseba Arrate eta Asier Gallego), Zarauzko beste ordezkari batekin (Danel Lopez).

Bigarren postua lortu zuten etxekoek, Nafarroaren atzetik. Hirugarren Bizkaia izan zen eta azken postuan Arabako selekzioa sailkatu zen.

Bakarkako sailkapenean Adrian Sasiain lortu zuen Gipuzkoako selekzio posturik onena, hirugarren egin zuelarik.

### «Sakrifizio gehiago behar dute»

Ez da batera emaitza txarra Danakoek lorturiko Euskadiko Txapelketan; baina Batis Kortajarena entrenatzailea ez dago erabat pozik. «Gehiago egin ahal izan zuten pultsulariak, lehen postua eskuratzeko posible zen», argitu du entrenatzaileak.

Uda eta gero bere pultsulariak forma onenean ez daudela aitortu



Gipuzkoako 17 eta 15 urte azpiko Txapelketan parte hartu zuten Danena-Olaederrako pultsulariak. Hauetako lau izan ziren Euskadikoan. **A. IMAZ**

### » SAILKAPENA

#### ■ Lehen sailkatua.

Nafarroa.

#### ■ Bigarren.

Gipuzkoa. Bost pultsularietiko lau Danenakoak: Adrian Sasiain, Kellian Quintana, Joseba Arrate eta Asier Gallego.

#### ■ Hirugarren.

Bizkaia.

#### ■ Laugarren.

Araba.

du Kortajarenak. Zentzu horretan «sakrifizio gehiago» beharko lukezela uste du. «Batzuk bai, txukun aritzen dira, baina beste batzuk fisikoki aukerak dituztenez ez dira ehuneko ehuneko saiatzen eta hori ez zait gustatzen».

Entrenatzaileak gaineratu duenez, udako entrenamendu batzuk prestatu zituen pultsulariarentzat,

«baina batzuk ez dituzte bete. Denek egin dutela esan didate, baina hori segituan ikusten da».

#### Espainiako, bi aste barru

Bi aste barru, hilaren 17ko asteburu horretan, Sevillan (Espainia) Espainiako Txapelketa jokatu dute. Bertan parte hartu ahalizateko gutxiengo maila bat exijitzen dute. Berez, Sasiain, Quintana, Arrate, Gallego eta Koldo Saratxo pultsulariak sailkapen txartela lortu dute.

Kortajarenak, hala ere, ez du zehaztu oraindik joango diren pultsularien zerrenda. «Batzuk maila aldetik joan daitezke baina ez egin duten lanarengatik; horregatik bi aste hauetan egiten duten lanaren arabera erabakiko dut nor doan Sevillara eta nor geratzen den etxean», zehaztu du entrenatzaileak.



Eguraldia lagun, Lizartzan elkartasun bazkaria egin zioten Alañari. **HITZA**

## Koldo Alañari elkartasun bazkari jendetsua egin diote

**Lizartza** » 160 lagun inguruk «elkartasuna adierazi» zioten euskal preso ohiari; «helburua bete genuen, bera alaitzea».

### ERREDAKZIOA

Pasa den larunbatean, Koldo Alañari euskal preso ohi lizartzarri elkartasun bazkaria egin zioten Lizartzan. «12 urte espetxean pasa ondoren atera berria da kalera eta hori ospatu nahi genuen», zehaztu zuten antolatzaileek.

### Giro ona nagusi eta opariak Alañarentzat

Egunaren nondik norakoak azaltzerakoan «oso giro ona» izan zela goraiatu zuten. «Guztira 160 la-

gun inguru bertaratu ziren; hauek 30 bat, gainera, bere jaioterri- tik etorri ziren, Deustutik hain zuzen ere».

Bazkal ondoren opariak jasotzeko ordua iritsi zen eta Deustuko lagunak, Lizartzako gaztetxeak eta ezker abertzaleak egin zioten esku-erakutsia. Bertso eskolakoek ere, Alañari beraren semea tarteen, ongi etorri bertso sorta eskaini zioten eta ondoren pergaminu papelean idatzita eskura entregatu ere bai; «hauek beraren hunkigarriak izan ziren».

Antolatzaileek gustura amaitu zuten eguna: «Koldo Alañari alai ikustea zenez helburua hau lortu zen ala ere ez ziren ahaztuak izan oraindik barruan geratu direnak eta ihesian alde eginak», zehaztu dute.

# Seigarren postuan geratu dira TAKeko seniorrak

**Tolosa** » Asteburuan Tarragonako Espainiako Llaut txapelketan hartu zuten parte TAKeko arraunlariak.

REBEKA CALVO

Ondo aritu ziren Tolosako Arraun Klubeko senior eta beteranoen mailako arraunlariak asteburuan Tarragonan (Herrialde Katalanak) izandako Espainiako Llaut ontzien txapelketan, baina ez zen nahikoa izan.

Senior mailakoak seigarren egin zuten, nahiz eta bosgarren denborarik onena egitea ere lortu zuten, eta beteranoek aldiz, ez zuten lehen sailkapena gainditu.

«Guztira 17 ontzik hartu genuen parte eta seigarren egitea ere ez

dago gaizki», esan du senior mailako arraunlarietako batek, Unai Elizasuk.

Finalean aritu zireneko lau ontzietatik hiru federatutako arraunlariak ziren. «Oso maila altuko kirolariak dira, fisikoki oso ondo daudenak, eta fisikoki irabazi ziguten», argitu du.

## Ontzia menderatzeko denborarik ez

«Lehiakorrak gara eta saiatu saiatu ginen, baina ontzi berezi honetan bi astez bakarrik aritu gara... pena, denbora gehiago izan bagenu... Hala ere, ondo aritu ginela uste dut, onenak 6 minutu eta 14 segunduko marka egin zuten eta guk 6 minutu eta 26 segundo egin genituen, nahiko ondo dago», argitu du. Larunbatean izan ziren lehen sailkapenak eta igandean finaler-

dia eta finala izan ziren. Aipatu bezala senior mailakoek igandean aritzeko aukera ere izan zuten, nahiz eta larunbatean lema ere puskatu zitzaizen. Beteranoek, aldiz, ez zuten sailkapena lortu.

Txapelketan parte hartzearekin ere gustura geratu dira TAKeko arraunlariak, «sentsazio onarekin». Tarragonan (Herrialde Katalanak), gainera, «kristoren giroa» zegoela dio Elizasuk eta beraz, «esperientzia bezala oso ona» izan da TAKeko arraunlarietzat.

## Nesken txanda

Elizasuk orain euren egitekoa TAKeko «neskei animatzea» izango dela dio, «llauten txapelketan parte hartzen badute seguru lan txukuna» egingo dutela eta.

Tolosaldeko arraunlariak, dena den, ez ziren Espainiako Llaut txapelketan aritu ziren euskaldun bakarrak. Orioko gazteen maila ere han izan zen eta irabazi egin zuten, gainera. Bigarreneko, Alacanteko ontziari, hain zuten, 11 segundoko aldea atera zieten oriotarrek eta herrira itzultzerakoan ere harrera



Beteranoen taldeak ez zuen larunbateko sailkapena pasa. HITZA

pelketan aritu ziren euskaldun bakarrak. Orioko gazteen maila ere han izan zen eta irabazi egin zuten, gainera. Bigarreneko, Alacanteko ontziari, hain zuten, 11 segundoko aldea atera zieten oriotarrek eta herrira itzultzerakoan ere harrera

egin zieten herrian txaranga eta guzti.

Txapelketan, orokorrean, balentziarrak ibili ziren ondoen, gutzira 11 domina eskuratu zituzten; urrezko hiru eta launa zilarrezko eta brontzezko.

## Atxiloketak kobrea lapurtzen saiatzeagatik

**Tolosa** » Herenegun goizaldeko hirurak aldera atzeman zituzten Tolosako enpresa batean lapurtzen ari zirela.

ERREDAKZIOA

Ertzaintzak Tolosako enpresa batean kobrezko kableak ostean ari ziren lau pertsona atxilotu zituen herenegun goizaldeko hiruak aldera.

Herrizaingo sailak esandakoaren arabera, Ertzaintzak dispositibo berezia zuen lapurreta agiten ari zireneko Tolosako enpresaren inguruan, izan ere ez zen lehen aldia atxilotuek bertan kobrea lapurtzen zutela.

### «Materiala eta objektuak manipulatu»

Ertzainek enpresa barruan hainbat pertsona zeudela ikusi zuten

eta «delituzko ekintzaren bat egin ari zirela iritzita, beraiengana zuzendu» ziren.

Agenteeek «hainbat material eta objektu manipulatu» harrapatu zituzten eta, poliziak ikusterakoan, ihes egiten ere saiatu zirela dio Herrizaingo Sailak.

Agenteeek 21 eta 44 urte arteko lau susmagarriak identifikatu eta atxilotu zituzten lapurretan egiteagatik.

### 1.200 kilo kobrea

Era berean, Ertzaintzak 1.200 kilo kobrea aurkitu zituzten Tolosatik gertu dagoen ermita batean ezkatuta.

«Material hori enpresan aurretik egindako beste lapurreta batzuetan eskuratu omen zuten atxilotuek eta garraiatzeko prestatuta zeukaten», argitu du Herrizaingo Sailak.

Lau atxilotuak epailearen esku jarri ditu Ertzaintzak.

## Laburrak

### Arrospe hirurgarren Urrezko Aizkolarari Ligan

**LEABURU** • Leaburuko Anjel Arrospe Urrezko Aizkolarari Txapelduen Ligako sailkapen orokorreko hirugarrena da 18 punturekin. Aurretik ditu Donato Larretxea 28 punturekin eta Floren Nazabal 25 punturekin. Datorren saioa gaur bertan izango da, 13:00etatik aurrera, Agurainen (Araba). Bertan, Floren Nazabal, Juan Jose Lopez Azpilikueta eta Iñaki Azurmendi ariko dira. Iñaki eta Iñaxio Perurenaren erakustaldia ere egongo da.

### Kultur lantegietan izena emateko aukera

**IBARRA** • Oraindik ere 2009-2010 ikasturteko Ibarako Kultur Etxeko kultur lantegietan izena emateko aukera dago, izan ere tailerretako batzuetan lekua dago oraindik. Hauek dira antolatuta dituztenak: aretoko dantzak, sevillarrak, arropa konponketa, egur taila, ehoziariak, errestaurazioa, masajea, pintura, eskulanak eta makillajea.

## San Bartolome jaietako argazki erakusketa

ERREDAKZIOA

Ibarako Benito Izagirre kultur etxean pasa den abuztuko San Bartolome jaietako argazkiekin osatutako erakusketa ikus daiteke hileren 30era arte. Kultur Etxea-

ren ordutegia 10:30etik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara da. Erakusketara gerturatzen direnek, gainera argakien kopiak ere eskatu ahal izango dituzte harreran dagoen eskari-orria betez.



Erakusketan ikus daitezkeen irudietako bi. HITZA



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Kirolariak 'Egunkaria'-ren epaiketaren aurka elkarretaratzea egin zuten urriaren Zan Donostian. HITZA



Begoña Zubelzu eta Joan Mari Torrealda auzipetuak. JON URBE/ARGAZKI PRESS

## «Garbi dugu ez dugula ezer egin, beste guztiak ez dio axola»

**BEGOÑA ZUBELZU** › Auzipetua

# Espainiako Auzitegi Nazionaletik igaro ondoren ahozko epaiketaren zain

### 'Egunkaria auzia' ›

Begoña Zubelzuk, beste zazpi kide bezala, autoa eta kalifikazioak jaso zituen atzo Madril.

### ASIERIMAZ

*Egunkaria*-ko auzi ekonomikoan auzipetutako zortzi kidek, tartean Alegian bizi den Begoña Zubelzuk, atzo jaso zituzten Espainiako Auzitegi Nazionalen epailearen ondorioen autoa eta Dignidad y Justicia elkartearen eta fiskalaren kalifikazioak.

Eloy Velasco epaileak 10:00etan jarri zien hitzordua. Auzipetuek Madril tramite laburra burutu zuten, «sinadura bota» eta atzera Euskal Herrira itzuli baitziren.

Orain, defentsak idatzia aurkeztu ondoren eta «Auzitegi Nazionalaren ikerketa amaitu ostean», epaiketa noiz hasiko zain geratu dira zortzi euskal herritarrek.

### Egunkaria-ren aurka, bi auzi

Auzitegi Nazionalen *Egunkaria*-ri buruzko bi auzi daude zabalik: sumario nagusia edo euskal kazetaren itxierari buruzkoa, hau da, 2003ko otsailean izan zen operazioari dagokiona eta sumario ekonomikoa edo uesteko irregulartasunei buruzkoa, hots, 2003ko urrian izan zen operazioari dagokiona.

Lehen auziari dagokionez, epaiketa azaroan hasiko da Espainiako Auzitegi Nazionalen. Bertan

Joan Mari Torrealda, Iñaki Uri, Txema Auzmendi, Xabier Oleaga eta Martxelo Otamendi tolosarra daude auzipetuta, etakide izatea egotzia. Fiskalak, defentsak bezala, auzia ixteko eskatu zuten.

Bigarren auzian, zortzi dira auzipetuak. Hauentzat 13 eta 26 urte

**13 eta 26 urte arteko espetxe zigorrak eta 235 milioi euroko isunak zortzi auzipetuentzat**

**Torrealda: «Fiskalak ere epaiketa ez litzatekeela Auzitegi Nazionalen egin behar uste du»**

arteko espetxe zigorrak eskatu dituzte, baita 235 milioi euroko isuna ere. Diru kontuak faltsutzea eta zerga iruzurra egin izana egotzi diete zortzietan. Fiskalak bat egin du eskaera horiekin baina, oraingoz, ez du akusazioa formalizatu, Eusko Jaurlaritzaren txosten baten zain dagoelako.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Jaurlaritzak, diru laguntzen emaleek, «kasuan deliturik ez dagoela» esan izan dute.

### «Ez dugu deliturik egin»

Auzitegi Nazionaletik irteetan Joan Mari Torrealda auzipetuak hitz egin zuen atzo. *Egunkaria* SAko administrazio kontseiluko lehendakari ohiak, ez dutela delitu ekonomikorik egin azpimarratu

zuen berri ere, eta egotekotan, ez litzatekeela Auzitegi Nazionalak epaitu behar azaldu zuen, «Euskal Herrikoen batek baizik, leporatzen digutenak ez duelako zerikusirik indarkeriarekin».

Torrealdaik jakinarazi zuenez, «Miguel Angel Carvallo fiskalak ere, epaiketa ez litzatekeela Auzitegi Nazionalen egin behar uste du».

### ›› AUZIPETUAK

*Egunkaria*-ko auzi ekonomikoan auzipetuak eta euren aurkako eskariak:

- **Joan Mari Torrealda**. 26 urte eta 4 hilabeteko espetxealdia dute eskatuta haren aurka, eta 32,8 milioi euroko isuna.
- **Iñaki Uri**. 26 urte eta 4 hilabeteko espetxealdia eta 32,8 milioi euroko isuna.
- **Txema Auzmendi**. 26 urte eta 4 hilabeteko espetxealdia eta 32,8 milioi euroko isuna.
- **Joxe Mari Sors**. 26 urte eta 4 hilabeteko espetxealdia eta 32,8 milioi euroko isuna.
- **Ainhoa Albisu**. 26 urte eta 4 hilabeteko espetxealdia eta 32,8 milioi euroko isuna.
- **Mikel Sorozabal**. 21 urte eta 9 hilabeteko espetxealdia eta 27,2 milioi euroko isuna.
- **Begoña Zubelzu**. 17 urte eta 2 hilabeteko espetxealdia eta 21,6 milioi euroko isuna.
- **Fernando Furundarena**. 13 urte eta 3 hilabeteko espetxealdia eta 21,2 milioi euroko isuna.

Auzitegi Nazionalera joan beharrean aurkitu zen atzo Alegian bizi den Begoña Zubelzu (Hernani, 1974), beste zazpi euskal herritarrekin batera. Espainian «tramite huts» bat egin ondoren, berriro Euskal Herrira itzuli ziren *Egunkaria*-ko auzi ekonomikoan auzipetuta dauden lagunak.

**Nolako izan da zuen gaurko [atzko] goiza?**  
Goizean goiz irten gara hemendik, 04:30ean. Zuzenean Espainiako Auzitegi Nazionalera joan gara. Bertan sartu, paper batzuk sinatu, atera eta etxera. Tramite huts bat izan da.

**Ikerketa amaitu eta ahozko epaiketa hastera doala esan nahi du honek, ezta?**

Bai. Abisu bat ere izan da: epaiketa aurrera doa eta gauzak azkartzeko Madrilera etorri. Aurrez, balio gabetu baino lehen, gauza bera Tolosako epaitegiaren bitartez egin genuen.

**Zergatik balio gabetu zuten orduan?**

Hasieran, ordea, epaileak ez zien denei deklarazioa hartu, batzuo bakarrik. Horren ondorioz, prozedura baliorik gabe gelditu zen. Horrek dena berriz hastea ekarri zuen.

### Denen deklarazioak bildu nahian.

Falta zirenek deklaratu zutenean, berriro abiatu zen dena. Oraingoz ordea, epaitegi bidez igorri beharrean, Madrilera joan behar izan dugu sinatzera.

**Zuen defentsan bi ideia nagusi ageri dira: deliturik ez duzuela egin eta egitekotan ere, Auzitegi Nazionalen epaitzekoa ez litzatekeela izango.**

Gaur [atzko] jaso dugun autoan adibidez, fiskalak oraingoz Diputazioaren onarpenarekin, BEZaren deliturik ez dela izan esaten du. Baina aldi berean Dignidad y Justicia esaten duenarekin bat egiten duela aipatzen du. Hauek berriz aurreko zigor berdinak eskatzen dituzte gure aurka.

**Nola bizi dituzue gora behera hauek?**

Ahal den bezala. Duen garrantzia eman behar zaio, baina zorte pixka batekin ea gauzak ondo ateratzen diren.

**Orain epaiketaren zain egon behar.**

Beste kideei nola joaten zaien ikusi behar da lehenik. Horren arabera ikusiko da guri nola joango zaigun. Guk garbi daukagu ez dugula ezer egin eta kontzientzia lasai daukagunez... kasu horretan beste guztiak ez dio axolarik.

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** S5-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@irragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralea:** 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Erakusketa

■ **Tolosa.** Iñigo Altolagirrenen pintura erakusketa Aranburu Jauregian.

### Zinema

■ **Tolosa.** Zinea euskaraz ikasleentzat Leidor aretoan Tinkok antolatu.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.  
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

### » IRRATIA

#### Txolarre irratia

Tolosaldeko Ahotza:

-11:00-12:00. Albistegia (Eguraldia, eskualdeko albistekak, oharrak, agenda...)

-12:00-13:00. Magazina.

-13:00-13:30. Lehiaketa eta disko eskainiak.

13:30-14:00. Egurdiko albistegia - Info 7.

14:00-15:00. Tolosaldeko Albistegia.

17:00-18:00. Musika nobedadeak Tolosaldeko Ahotza (errepikapena):

-18:00-19:00. Magazina

-19:00-20:00. Albistegia

20:00-20:30. Iluntzeko albistegia, Info 7.

### » TELEBISTA

#### 28 Kanala

08:30. Ur eta Lur.

09:00. Muka-Muka.

09:30. Tolosaldean Gaur.

10:00. Udazken Loreak.

10:30. 28 Klip.

11:00. Itsasoari begira.

11:30. Tolosaldean Gaur.

12:00. Ilunpean.

12:30. Saio berezia: Verdini 1.

13:00. Alex eta Alexis.

13:30. Tolosaldean Gaur.

14:00. Udazken Loreak.

14:30. 28 Klip.

15:00. Itsasoari begira.

15:30. Tolosaldean Gaur.

16:00. Ilunpean

16:30. Saio berezia: Verdini 1.

17:00. Alex eta Alexis.

17:30. Tolosaldean Gaur.

18:00. Kalekantoian.

18:30. Wazemank.

19:00. Erloklip.

19:30. Tolosaldean Gaur.

20:00. EH lau haizetara.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

# Sentsibilizazio kanpaina

**Tolosa** » Pertsona gorrek egunerokoan izan ditzaketen trabez sentsibilizatu nahian, kartelak jarri dituzte.

### ERREDAKIZIOA

Gainditzen elkarteak Gorren Komunitatearen Sentsibilizazio 6. Asteari ekingo dio bihar. Gaian murgiltzen joateko, ordea, atzo Tolosako San Frantzisko ibiltokian hainbat kartel jarri zituzten, mezu ezberdinak zabalduz. Guztietan ere helburua euren egunerokoan izaten dituzten gabezi eta traben berri ematea da, sentsibilizazioa lortze aldera.

### Hainbat adibide

Gizartearentzat hain ohikoak izan daitezkeen jarduera batzuk burutzea beste batzuentzat ia ezinezkoak bilaka daitezke. Gorrek eurentzat zailak diren hainbat irudikatu dituzte kartel hauetan. Esaterako, telebista ikustea. «Azpitituluak ez dituzte kate guztiak saio guztietan erabiltzen». Ondorioz ezin dute nahi bezala ulertu bertan gertatzen dena.

Beste adibideetariko bat larrialdi kasuetan ematen da. «Lantokian sute bat dagoenean argi alar-marik ez badago, ezin garajabetu», diote karteletako batean.

Medikuarengana joan eta dugu gaixotasunaren berri ematea



San Frantzisko ibiltokian sentsibilizatzeko kartel hauek ikus daitezke egunotan. I. TERRADILLOS

erraza dirudi baina gorren komunitatea osatzen dutenek hemen ere trabak izaten dituztela erakusten dute beste kartel batean. «Ezin dugu erraztasunez azaldu dugun gaixotasuna».

Medikuaren kasuan bezala, berdin gerta daiteke, esaterako, epailearen aurrean, nahiz eta ez den eguneroko jarduera bat, guztioi gerta dakiguke noiz edo noiz epaile batekin hitz egin behar izatea.

Kasu hauek erakusten dute oraindik ere lan handia egiteko dagoela alor honetan. Bihartik aurrera, hain zuzen ere, sentsibilizatzeko bide horri ekingo dio gorren komunitateak.

## A Agurrak

agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletzeko bulegoa

agurrak